DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 -2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA, ETXEKO OLIO ERABILIA EDUKIONTZIEN, GARRAIOAREN, BIRZIKLAPENAREN ETA BALORIZAZIOAREN BIDEZ GAIKA BILTZEKO PROZEDURA IREKIKO KONTRATUA ARAUTZEKOA	PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA EL CONTRATO DE RECOGIDA SELECTIVA MEDIANTE CONTENEDORES, TRANSPORTE, RECICLAJE Y VALORIZACIÓN DE ACEITE DOMÉSTICO USADO, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO
1.- KONTRATUAREN XEDEA:	**1.- OBJETO DEL CONTRATO**
Agiri honen xedea da Donostiako udalerrian gaur egun dauden edukiontzien bidez etxeko olioa gaika bildu, garraiatu, birziklatu eta balorizatzeko zerbitzu-emakida kontratatzeko oinarri izango diren baldintza teknikoak ezartzea, espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz (kontratu-izaera izango du).	Es objeto del presente Pliego establecer las condiciones técnicas que servirán de base para contratar la prestación de la concesión de servicios para la recogida selectiva, transporte, reciclaje y valorización de aceite doméstico mediante los contenedores instalados actualmente, en el ámbito del término municipal de San Sebastián, de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente, que tendrá carácter contractual.
Kontratuaren xede den emakida zerbitzu publikoa denez, SPKL-ko 284 artikuluan eta hurrengoetan ezarritako berezitasunak izango zaizkio aplikagarri.	La concesión de servicio objeto del contrato es un servicio público, por lo que le serán de aplicación las especialidades establecidas en el art. 284 y siguientes de la LCSP.
Zerbitzu honen lizitazioa **bi SORTETAN banatuta** egingo da, eta bakoitza bere aldetik eskaini beharko da, bai alde teknikoan, bai ekonomikoan. Bi sortak batera hartzen dituen **ESKAINTZA BATERATZAILEA** aurkeztu ahal izango da. Hiria bi gunetan banatuta geratuko da, ekialdea eta mendebaldea. Urumea ibaiaren ibilbideak eta Begiristain doktorearen pasealekutik igarotzen den banalerroak mugatuko dute bi eremuen arteko banaketa, pleguari erantsitako planoaren arabera.	La licitación de este Servicio se realizará **dividida en 2 LOTES** que se deberán ofertar por separado, tanto en su parte técnica como económica, pudiendo presentar una **OFERTA INTEGRADORA** que abarque los dos lotes juntos. La ciudad quedará dividida en dos zonas, ESTE y OESTE. La división entre las dos zonas quedará delimitada por el cauce del río Urumea y una línea divisoria que discurre por el Paseo del Doctor Begiristain, según el Plano anexo al Pliego.
Mendebaldeko eremua 1. sortari dagokio: Aiete 9 Amara 14 Antiguo 11 Añorga 2 Erdialdea – Parte Zaharra 13 Ibaeta 5 Igeldo 1 Zubieta 1 Guztira 56	La zona Oeste corresponderá al LOTE 1: Aiete 9 Amara 14 Antiguo 11 Añorga 2 Erdialdea – Parte Zaharra 13 Ibaeta 5 Igeldo 1 Zubieta 1 Total 56
Ekialdeko eremua 2. sortari dagokio: Altza 14 Bidebieta 7 Egia 7 Gros-Ulia 14 Intxaurrondo 13 Loiola-Martutene 8	La zona Este corresponderá al LOTE 2: Altza 14 Bidebieta 7 Egia 7 Gros-Ulia 14

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Guztira 63	Intxaurrondo 13 Loiola-Martutene 8 Total 63
2.- KONTRATUAREN XEDE DIREN ZERBITZUEN DESKRIBAPENA Landare-olioa gaika jasotzeko zerbitzuak honako hauek biltzen ditu: 1. Bide publikoan jarritako edukiontzietan herritarrek utzitako etxeko olio erabilia bildu, garraiatu eta birziklatzea. 2. Bioerregai homologatua (biodiesela) edo beste produktu batzuk egiteko baimena duen balorizatzaile bati olioa ematea. 3. Bide publikoan dauden olio-edukiontziak garbitu, kontserbatu eta haien mantentze osoaz arduratzea.	**2.- DESCRIPCIÓN DE LOS SERVICIOS OBJETO DE CONTRATO** El servicio de recogida selectiva de aceite vegetal comprende: 1. La recogida, transporte y reciclado de aceite vegetal usado de origen doméstico depositado por la ciudadanía en los contenedores instalados en la vía pública. 2. La entrega del aceite a un valorizador autorizado para la elaboración de biocombustible homologado (biodiésel) u otros productos. 3. La limpieza, conservación y mantenimiento integral de los contenedores de aceite instalados en la vía pública.
2.1. OLIOA BILDU ETA GARRAIATZEA. **Bildu beharreko hondakinak:** Landare-olio jangarria (frijitzeko olioa), erabilia, etxekoa, ontziratua (edukiontzien ahoetara egokitzen diren ontzi arinen barruan), bide publikoan jarritako edukiontzi berezietan utzia. Etxeko olio erabilia biltzeko erabiltzen diren edukiontzien ezaugarriak. Edukiontziek ezaugarri tekniko hauek dituzte:	**2.1. RECOGIDA Y TRANSPORTE DEL ACEITE.** **Residuo objeto de recogida:** Aceite vegetal comestible (aceite de fritura) usado, de origen doméstico, envasado (dentro de recipientes ligeros que se adaptarán a las bocas de los contenedores), depositado en contenedores especiales instalados en la vía pública. Características de los contenedores utilizados para el depósito de aceite doméstico usado. Los contenedores colocados reúnen las siguientes especificaciones técnicas:
- Olio-edukiontzia berariaz diseinatuta dago erabiltzaileak etxean botilatu duen etxeko olio erabilia bota dezan. Horretarako, etxeko ontzi arinak berrerabiliko ditu, edo esleipendunak etxe bakoitzean entregatu dituenak, ahal dela plastikozkoak. - Olio-ontziak sartzeko, edukiontziak gutxienez aho bat izan behar du. Karga ahoak erraz irits daitezke, erabiltzen erosoak dira, esku bakarrarekin erabil daitezke, eta ez dute kolperik edo harrapaketarik eragiten. - Buzoiak diseinatuta daude bidoi txikiak edo 5 litrorainoko etxeko olioaren txanbilak sartzeko, edo, esleipendunak/ek ematen baditu ontziak, hark banatzen dituenak.	- El contenedor de aceite está diseñado específicamente para que el/la usuario/a deposite el aceite doméstico usado que previamente ha embotellado en su domicilio, reutilizando envases domésticos ligeros o aquellos que previamente el adjudicatario haya entregado en cada domicilio, preferentemente de plástico. - Para la introducción de los recipientes de aceite el contenedor dispone de al menos una boca. Las bocas de carga son fácilmente accesibles, cómodas de utilizar, pueden ser usadas con una única mano y evitan posibles golpes o atrapamientos. - Los buzones están diseñados para permitir la introducción de pequeños bidones o garrafas de aceite doméstico de hasta 5 litros o en el caso de que el/los adjudicatario/s sea el que facilite los recipientes, las botellas que éste reparta.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Edukiontzia bi elementuk osatzen dute, eta horietako bat, barne-upela, estankoa da olio botilatuarentzat.	- El contenedor está formado por dos elementos de los cuales la cuba interior es estanca para aceite embotellado.
- Edukiontziaren diseinuagatik, erabiltzaileek utzitako ontziak edo bilgarriak hausten badira ere, erabateko estankotasuna bermatuta dago, eta ezin da ontzirik erori barne-upeletik kanpo, ez eta, inongo arrazoirengatik, edukiontzitik kanpo olioa isuri ere.	- El diseño del contenedor es tal que, ante la posible rotura de los envases o recipientes depositados por los usuarios, se garantiza completamente su estanqueidad y no permite ni caídas de recipientes fuera de la cuba interior ni que se produzcan derrames de aceite fuera del contenedor por ninguna causa.
- Edukiontziaren kanpoko karkasa ekintza bandalikoen ondoriozko biratzeak, mugimenduak edo kalteak saihesteko diseinatuta dago.	- La carcasa exterior del contenedor está diseñada para evitar vuelcos, movimientos o daños por actos vandálicos.
- Olioa biltzeko barne upelak 400 litro hartzen ditu, gutxienez, eta, ontziz beteta dagoenean, bere kargari eusteko gai da.	- La cuba interior para la recogida de aceite tiene una capacidad mínima de 400 litros y es capaz de, una vez llena de envases, soportar su carga.
- Upela erabat estankoa da, eta bere diseinu eta, edukiontziaren barruan duen kokapenagatik, ezin da ontzirik erori edukiontzitik kanpo.	- La cuba es completamente estanca y su diseño y colocación dentro del contenedor no permite caídas de recipientes fuera del mismo.
- Bandalismo-ekintzen aurrean segurtasun handiagoa izateko, upel horrek ez du gurpilik, eta, beraz, bilketa-langileek transpalet edo antzeko baten bidez atera eta berriro edukiontzian sartu behar dute. Transpaletekin-edo lurretik jaso eta edukiontzitik ateratzen da, bilketa-ibilgailura eramateko. Gurpilik izanez gero, edukiontziak barne upela ateratzea eragozten duten sistemak ditu, kanpoko atea irekitzen bada ere.	- Para mayor seguridad ante eventuales actos de vandalismo, esta cuba no dispone de ruedas, por lo que está diseñada de tal manera que su extracción y sustitución por parte del personal de recogida se efectúe mediante una transpaleta o similar con la que se levanta del suelo y se extrae del contenedor para ser transportada al vehículo de recogida o, en caso de tener ruedas, el contenedor dispone de sistemas que impiden la extracción de la cuba interna aunque la puerta exterior se abriera.
- Upelaren diseinuak ahalbidetzen du garabi bidez jasoa eta manipulatua izatea.	- La cuba dispone de un diseño que permita su izado y manipulación mediante grúa.
- Atea sendoa da eta ekintza bandalikoen kontrako segurtasun sistemak ditu, baimenik ez duten pertsonak barrura sar ez daitezen.	- La puerta es robusta y dispone de sistemas de seguridad contra actos vandálicos para evitar el acceso indeseado de personal no autorizado a su interior.
- Korrosioarekiko erresistenteak diren piezek osatzen dute edukiontzia, eta aukera ematen dute erraz mantendu, konpondu eta hondatutako elementuak ordezteko.	- El contenedor está conformado por piezas resistentes a la corrosión, que permiten fácilmente el mantenimiento, reparación o sustitución de elementos que puedan resultar dañados.
- Edukiontziek bi itsasgarri inprimatu dituzte, 100 x 70 cm-koak, gutxi gorabehera; horietako bat edukiontziaren aurrealdean dago, eta bestea, atzeko aldean. Udalak zerbitzuari buruz emandako informazioa daramate.	- Los contenedores disponen de dos adhesivos impresos, medidas 100 x 70 cm. aproximadamente, uno de ellos situado en la cara frontal del contenedor y otro en la cara posterior, que incluyen información definida por el Ayuntamiento relativa al servicio.
- Edukiontzi guztiek identifikazio zenbaki korrelatibo itsaskor zuri bat dute. Zenbakiaren altuera: 10 cm.	- Todos los contenedores disponen de un número correlativo identificativo adhesivo en color blanco. Altura del número 10 cm.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Bilketa eremua: Bilketa-eremuak bi eremu ditu: ekialdea eta mendebaldea. Urumea ibaiaren ibilbideak eta Begiristain doktorearen pasealekutik igarotzen den banalerroak mugatuko dute bi eremuen arteko banaketa, Agiri honi erantsitako planoaren arabera. **Olio-edukiontzien kokapena:** Auzo bakoitzean, gutxieneko edukiontzi kopuru bat ezartzen da, biztanle-kopuruaren eta sakabanatze-mailaren arabera, herritarrei zerbitzu egokia emateko. 1. atalean, kontratuaren hasieran auzo bakoitzean zenbat olio-edukiontzi dauden erakusten da, eta, gainera, edukiontzien kokapenaren planoa eransten da.	**Ámbito de recogida:** El ámbito de recogida queda definida en dos zonas, Este y Oeste. La división entre las dos zonas quedará delimitada por el cauce del río Urumea y una línea divisoria que discurre por el Paseo del Doctor Begiristain, según el plano anexo de este Pliego. **Ubicación de los contenedores para aceite:** Se establece un número mínimo de contenedores para cada barrio en función del número de habitantes y del grado de dispersión, que se estipula puede dar servicio de manera adecuada a la ciudadanía. En el aparatado 1 se muestra el número de contenedores de aceite que están instalados en cada barrio al inicio del contrato y además, se adjunta plano con la ubicación de los contenedores.
Esleipenduna/k behartuta dago/daude sorta bakoitzean edukiontzi bat jartzera, egungo ereduaren ezaugarri berberekin, kontratua sinatu eta hilabeteko epean. 1. sortaren esleipendunak Txomin-Enean jarri beharko du; 2. sortaren esleipendunak, Miramonen; eta bi sorten edo eskaintza bateratzailearen esleipendunak, bietan (Txomin-Enea eta Miramon).	El/Los adjudicatario/s está/n obligado/s a colocar un contenedor en cada lote con las mismas características del modelo actual, en el plazo de un mes desde la firma del contrato. El adjudicatario del lote 1 deberá colocarlo en Txomin-Enea; el adjudicatario del lote 2 deberá colocarlo en Miramon; y el adjudicatario de ambos lotes o de la oferta integradora deberá colocarlo en ambos sitios. (Txomin-Enea y Miramon).
Zerbitzua ematen urtebete igaro ondoren, luzapena onartzen bada, zerbitzuaren dimentsionamendua berrikusiko da. Eremu berrietan zerbitzu berriak emateko, Udalak sorta bakoitzaren esleipendunari eskatu ahal izango dio edukiontzi bat izan dezala eta 2 sorten esleipendunari edo eskaintza bateratzailearen esleipendunari bi edukiontzi izatea, hiriaren edukiontzi-mantentze handiagoa estaltzeko. Luzapenean gerta daitekeen edukiontzien gehikuntza berri hori kontratuaren aldaketa bidez egingo da (BAZAko ezuagarri-taulako 21. atalaren baitan). Honek EZ du kanona aldatzera eragingo. Kontenedore gehigarri hauek udalarenak izatera pasako dira. Edukiontzia osorik aldatu behar izanez gero, hautsi edo kolpatu delako, nahiz Udalari ezin egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, esleipendunak/ek bere gain hartu beharko du/dute edukiontzi berria jartzeak dakarren kostua.	En caso de que se acuerde la prórroga del contrato, este dimensionamiento inicial del servicio se revisará trascurrido el primer año de prestación del servicio. En aras a responder nuevos servicios en nuevas zonas, el Ayuntamiento podrá exigir al adjudicatario de cada lote que disponga de un contenedor y al adjudicatario de los 2 lotes o de la oferta integradora que disponga de dos contenedores, para cubrir una mayor contenerización de la ciudad. Esta posible mayor contenerización durante la prórroga se realizará mediante una modificación del contrato (clásula 21 de la tabla de características del PCAP) y NO conllevará modificación en el canon. Estos contenedores adicionales pasarán a ser propiedad del Ayuntamiento. En caso de que sea necesario una reposición completa del contenedor por rotura, golpe o causa ajena al Ayuntamiento, el/los adjudicatario/s estará/n obligado/s a asumir el coste de la reposición.
Bilketa sistema:	**Sistema de recogida:**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Landare olioa jasotzeko, behar bezala hornitutako eta errotulatutako industria-ibilgailu bat erabiliko da, gutxienez langile baten ardurapean dagoena. Enpresak/ek hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legea bete beharko du/dute, hondakinaren garraioari dagokionez (landare olio erabilia). Enpresako langileek olio edukiontziaren inguruan aparkatuko dute ibilgailua, barne upel metalikoa hartzeko olio edukiontziaren atea irekiko dute, upela atera eta upel huts erabat garbi batez ordezkatuko dute. Ibilgailuak ezinbestekoak diren geralekuak eta maniobrak egingo ditu bilketa tokietan, ez gehiago, denbora osoan oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorria ez oztopatzen saiatuz, eta behar diren segurtasun neurriak hartuz.	La recogida de aceite vegetal se efectuará a través de un vehículo industrial debidamente equipado y rotulado, atendido por un operario como mínimo. La/s empresa/s deberá/n cumplir con la Ley 22/2011 de residuos y suelos contaminados, en lo referente al transporte del residuo (aceite vegetal usado). El personal de la/s empresa/s estacionará/n el vehículo en las inmediaciones del contenedor de aceite, abrirá/n la puerta del contenedor de aceite que da acceso a la cuba metálica interior, la extraerá/n y la reemplazará/n por otra cuba vacía, completamente limpia. El vehículo realizará las paradas y maniobras estrictamente necesarias en los puntos de recogida, procurando en todo momento, no entorpecer el normal tránsito de personas y vehículos, adoptando las debidas medidas de seguridad.
Edukiontziak husteko maiztasuna: Ez da aldez aurretik ezartzen husteko gutxieneko maiztasunik, baina lizitatzaileak maiztasun-proposamena egin beharko du (Agiri Administratiboko ezaugarrien taulako 19.1. klausularen B irizpidean), esleipendunak/ek nahitaez bete beharko du(t)ena. Hala ere, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak/ek husteko maiztasuna edukiontzien betetze-abiadurara egokitu beharko du/dute, eta, beharrezkoa bada, olioa husteko maiztasuna handitu, Udal Zerbitzu Teknikoek kasu bakoitzean emandako jarraibideen arabera; hala edukiontziek beti izango dute olioa biltzeko edukiera nahikoa. Segurtasun-arrazoiengatik, hustuketa-maiztasunak ziurtatu beharko du edukiontzian utzitako materialak ez duela betetzen inoiz haren edukieraren % 67 baino gehiago. Udaleko Zerbitzu Teknikoek egiaztatzen badute olioa husteko maiztasuna ez dela nahikoa bermatzeko edukiontzien betetze-bolumenaren % 33, gutxienez, beti egongo dela erabilgarri, Udalak hala eskatuta, kontratistak/ek ohiz kanpoko hustuketak egin beharko ditu/dituzte, portzentaje hori bermatu arte, edo, Udaleko Zerbitzu Teknikoekin bat etorriz, edukiontzi gehiago jarriko ditu/dituzte inguruetan.	**Frecuencia de vaciado de los contenedores:** No se establece de antemano una frecuencia mínima de vaciado, pero el/los licitador/es deberá/n hacer una propuesta de frecuencia (en el criterio B de la cláusula 19.1 de la tabla de características del Pliego Administrativo) que será de obligado cumplimiento por el/los adjudicatario/s, si bien, durante la vigencia del contrato, el/los contratista/s tendrá/n obligado adecuar la frecuencia de vaciado a la velocidad de llenado de los contenedores, aumentando si fuera preciso tal frecuencia de vaciado, de acuerdo con las instrucciones que en cada caso dicten los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, para así mantener permanentemente disponible la capacidad de depósito de aceite en los contenedores. Por motivos de seguridad, la frecuencia de vaciado será aquella que asegure en todo momento, que el material depositado en el contenedor no supere el 67% de su capacidad de llenado. En aquellos casos en los que los Servicios Técnicos del Ayuntamiento comprueben que la frecuencia de vaciado prestada es insuficiente para garantizar una disponibilidad mínima permanente del 33% del volumen de llenado de los contenedores, a requerimiento del Ayuntamiento, el/los contratista/s deberá/n realizar recogidas extraordinarias de vaciado hasta garantizar la disponibilidad exigida o bien dispondrá/n, de acuerdo con los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, instalar más contenedores en las cercanías.
Bilketa lanak egitea: Kontratistak/ek kontu handiz jokatu beharko du/dute	**Ejecución de los trabajos de recogida:** El/Los contratista/s deberá/n tener el máximo

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

zerbitzua ematean, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Olioa bildu eta garraiatzeko lanetan istripuz isuri daitekeen edozein olio-hondakin berehala garbituko dute, guztiz, bilketa-langileek, horretarako egokiak diren produktuak eta tresnak erabiliz.	cuidado en la ejecución del servicio al objeto de no ensuciar las aceras y calzadas. El/Los operario/s de recogida procederá/n de forma inmediata a la completa limpieza de cualquier resto de aceite que pudiera derramarse accidentalmente durante las operaciones de recogida y transporte de aceite, utilizando productos y utensilios adecuados para tal fin.
Elementu desegokiak egotea Kontratista/k arduratuko da/dira botilatutako olioarekin batera edo olio edukiontziaren inguruan ager daitekeen edozein hondakin desegoki erretiratzeaz eta gaika kudeatzeaz. Kasu horietan, erretiratu ondoren, Udaleko Zerbitzu Teknikoei jakinaraziko die, behar diren neurriak har ditzaten kasu gehiago gerta ez daitezen.	**Presencia de elementos impropios** El/Los contratista/s se responsabilizará/n de la retirada y gestión selectiva de cualquier residuo impropio que pudiera aparecer junto con el aceite embotellado o en las inmediaciones del contenedor de aceite. En tales casos, después de efectuar su retirada, pondrá/n los hechos en conocimiento de los Servicios Técnicos del Ayuntamiento para la adopción de las medidas que sean necesarias para evitar que se repitan nuevos casos.
Edukiontziak husteko egutegia eta ordutegia: Lizitatzaileek, beren eskaintzan (Agiri Administratiboko ezaugarrien taulako 19.1. klausularen A irizpidean), zehaztuko dute zein egunetan eta zein ordutegitan egingo duten bilketa; egunez izango da.	**Calendario y horario de vaciado de los contenedores:** Los licitadores determinarán en su oferta (criterio A de la cláusula 19.1 de la tabla de características del Pliego Administrativo) los días en los que procederá a la recogida y el horario, el cual deberá ser diurno.
Edukiontziak lekuz aldatu, beste kokaleku batean jarri eta antzeko lanak egitea: Kontratistak/ek lan hauek egin beharko ditu/dituzte: a) Gehienez ere 2 egun balioduneko epean, instalatutako olio edukiontziak lekuz aldatu edo erretiratu eta berriz jartzea, justifikatutako edozein arrazoirengatik: zerbitzuaren beharrak; inguruan obrak egitea; asfaltatze-lanak; ibilgailuen trafikoan aldaketak; ibilgailu edo oinezkoetarako arriskutsuak diren egoerak; gizarte, kultura edo kirol ekitaldiak egitea; indarkeriazko ekintzak edo ekintza bandalikoak aurreikustea, etab. b) Udaleko Zerbitzu Teknikoek agindutako antzeko lanak. Kontratistak/ek Donostiako Udaleko Zerbitzu Teknikoek zerbitzu honi buruz emandako aginduak bete beharko ditu, horretarako emandako epean.	**Traslado y reubicación de contenedores y otros trabajos afines:** Será obligación del/ de los contratista/s, la realización de los siguientes trabajos: a) La reubicación o la retirada y posterior recolocación de los contenedores de aceite instalados, por cualquier causa justificada en un plazo máximo de 2 días hábiles: necesidades del servicio, ejecución de obras en las proximidades, labores de asfaltado, cambios en el tráfico rodado, situaciones de peligrosidad para vehículos o peatones, celebración de acontecimientos sociales, culturales o deportivos, previsión de actos violentos o vandálicos etc. b) Otros trabajos similares ordenados por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento. El/Los contratista/s deberá/n atender las órdenes dadas por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento de San Sebastián relativas a este servicio, en el plazo en que éstas se dicten.
Edukiontzietan utzitako olioaren jabetza:	**Propiedad del aceite depositado en los**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Edukiontzietan utzitako etxeko olio erabili guztia, jasotzen denetik, kontratist(ar)ena izango da, eta hark/haiek balorizatzaile edo hondakin-kudeatzaile baimendutako bati eraman beharko dio. Olioa edukiontzietan utzi, bildu, garraiatu, biltegiratu, egokitu eta balorizatzeko prozesuan sor daitezkeen betebehar eta erantzukizun guztiak kontratist(ar)en kontura izango dira. **Zerbitzuaren antolaketa:** Enpresa lizitatzaileei dagokie goian deskribatutako olioa bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko sistemarik eraginkorrena proposatzea, lizitatzaile bakoitzak proposaturiko bitartekoekin. Lizitatzaileek xehetasun guztiekin zehaztuko dituzte antolaketa proiektua, baliabideak eta langileak (Agiri Administratiboko ezaugarrien taulako 19.1 klausularen A eta C irizpideak).	**contenedores:** La totalidad del aceite doméstico usado depositado en los contenedores desde su recogida pasará a ser propiedad del/de los contratista/s, quien/es deberá/n proceder a su transporte a un valorizador o gestor de residuos autorizado. Todas las obligaciones y responsabilidades que puedan surgir en el proceso de depósito de aceite en los contenedores, recogida, transporte, almacenamiento, acondicionamiento previo y valorización del aceite serán por cuenta del/de los contratista/s. **Organización del servicio:** Corresponde a las empresas licitadoras proponer el sistema más eficaz para llevar a cabo el servicio de recogida y transporte del aceite anteriormente descrito con los medios propuestos por cada licitador. Los licitadores definirán con todo tipo de detalle, el proyecto de organización, medios y personal (criterios A y C de la cláusula 19.1 de la tabla de características del Pliego Administrativo)
2.2. EDUKIONTZIAK HUSTEA. **Ontziak hustu eta birziklatzea:** Herritarrek olio botilatua edukiontzietan uzteko erabilitako etxeko ontzi eta/edo bilgarriak hustea eta birziklatzeko edo berriz erabiltzeko bidaltzea kontratist(ar)en betebeharra da. **Upelak garbitzea:** Kontratistak/ek, bere/n instalazioetan, botilatuko olioa biltzeko upelak ondo garbitu beharko ditu, erabilera bakoitzaren ondoren. Horretarako, presiopeko garbiketa sistemak eta egokiak diren garbigarri eta koipegabetzaileak erabiliko ditu.	**2.2. VACIADO DE CONTENEDORES.** **Vaciado y reciclaje de envases:** Será obligación del/de los contratista/s efectuar el vaciado y envío para el reciclaje o reutilización de los envases y/o recipientes domésticos utilizados por los ciudadanos para el depósito de aceite embotellado en los contenedores. **Limpieza de cubas:** Será obligación del/de los contratista/s efectuar en sus instalaciones una limpieza a fondo de las cubas para la recogida de aceite embotellado después de cada uso, utilizando sistemas de limpieza a presión y productos detergentes y desengrasantes apropiados para ello.
2.3. BILDUTAKO OLIOA ETA ONTZIAK BALORIZATZEA Esleipendunak/ek bioerregaia (biodiesela) lortzeko baimendutako kudeatzaile edo balorizatzaile bati eman beharko dio bildutako olioa, egokitu ondoren. Hori edonola aldatzeko, aldaketak indarrean dagoen araudiak ontzat emana izan beharko du, eta Donostiako Udalak aldez aurretik onetsia. Enpresa kontratistak/ek Donostiako Udalari eman beharko dio/diote baimendutako kudeatzailearen	**2.3. VALORIZACIÓN DEL ACEITE Y LOS RECIPIENTES RECOGIDOS** Será obligación del/de los contratista/s destinar el aceite recogido, una vez acondicionado, a un gestor o valorizador autorizado para la obtención de biocarburante (biodiésel). Cualquier cambio en este destino deberá estar autorizado por la normativa en vigor y ser aprobado previamente por el Ayuntamiento de San Sebastián La/s empresa/s contratista/s estará/s obligada/s a entregar al Ayuntamiento de San Sebastián el

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

harrera-agiria, sei hilean behin, eta urtero aurkeztu beharko du/dute indarrean dagoen araudiak une bakoitzean eskatzen dituen baimenak indarrean ditu(zt)ela ziurtatzeko agiria. Era berean, olioa botatzeko ontziak berrerabilgarriak ez badira, kontratistak/ek ontzi guztiei tratamendu egokia bermatu beharko die, edozein motatakoak direla ere, dagokien birziklatzaileari emanez. Birziklatzea posible ez den kasuetan baizik ez da onartuko beste jomugarik, eta Udalaren aldez aurreko baimen idatziaren beharko da.	documento de recepción del gestor autorizado con periodicidad semestral, así como a presentar anualmente certificado de vigencia de las autorizaciones requeridas en cada momento por la normativa vigente. Asimismo, en el caso de que los recipientes de deposito de aceite no sean reutilizables, el/los contratista/s se verá/n obligado/s a garantizar un tratamiento adecuado a todos los envases depositados, sea cual sea su tipología, mediante su entrega al reciclador correspondiente. Sólo se admitirán destinos diferentes al reciclado para los casos en los cuales este no fuera posible y mediante autorización previa y por escrito del Ayuntamiento.
2.4. EDUKIONTZIAK GARBITU ETA MANTENTZEA.	**2.4. LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO DE CONTENEDORES.**
2.4.1. EDUKIONTZIAK GARBITZEA. **Helburua:** Edukiontzi guztien egoera higieniko-sanitarioa eta itxura estetiko ona bermatzeko, kontratist(ar)en betebeharra izango da Donostiako udalerrian dauden olio edukiontzi guztien garbiketa eta desinfekzio sakona egitea. **Garbitzeko tokia:** Edukiontzien ohiko garbiketa lanak "in situ" egingo dira, hau da, edukiontziak dauden lekuan bertan. Horretarako, kontratistak/ek neurri egokiak hartuko ditu/dituzte garbiketa lanen ondorioz, eta garbiketa ibilgailua edukiontziaren inguruan aparkatzearen ondorioz, ondasunei edo pertsonei kalterik ez eragiteko. **Garbitzeko maiztasuna:** Edukiontziak hilean behin, gutxienez, garbituko dira kanpoaldetik. Gutxieneko maiztasun horretaz gain, Udaleko Zerbitzu Teknikoek hala eskatzen diotenean, kontratistak/ek garbitu egin beharko ditu/dituzte hilean behingo garbiketen artean ageriko zikinkeria zantzuak dituzten edukiontziak. **Edukiontziak kanpotik garbitzeko lanen deskribapena:**	**2.4.1. LIMPIEZA DE CONTENEDORES.** **Objeto:** Para garantizar el perfecto estado higiénico-sanitario y el buen aspecto estético de todos los contenedores, será obligación del/de los contratista/s realizar una limpieza y desinfección exhaustiva de la totalidad de los contenedores para aceite instalados en el término municipal de San Sebastián. **Lugar de limpieza:** Las operaciones ordinarias de limpieza de contenedores se efectuarán "in situ", es decir, en el propio punto donde estén ubicados los contenedores. Para ello, el/los contratista/s adoptará/n las medidas adecuadas para evitar cualquier molestia a bienes o personas derivada de las operaciones de limpieza, inclusive del estacionamiento del vehículo de limpieza en las inmediaciones del contenedor. **Frecuencia de limpieza:** Los contenedores se someterán a una limpieza externa con una frecuencia mínima mensual. Con independencia de dicha frecuencia mínima, puntualmente, a requerimiento de los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, el/los contratista/s tendrá/n obligado efectuar la limpieza de aquellos contenedores que en el período comprendido entre limpiezas presenten signos evidentes de suciedad. **Descripción de las operaciones de limpieza externa de contenedores:**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Edukiontziak kanpotik garbitzeko, prozedura orokor hau erabiliko da:	La limpieza externa de los contenedores se realizará mediante el siguiente procedimiento general:
a) Lehenik, edukiontziari itsatsita dagoen kanpoko edozein elementu (kartelak, zinta itsasgarriak, eranskailuak, etab.) eskuz kenduko da.	a) En primer lugar se procederá a la retirada manual de cualquier elemento extraño que se encuentre adherido al contenedor (carteles, cintas adhesivas, pegatinas etc.).
b) Gero, edukiontziaren kanpoko azala eskuz edo mekanikoki lainoztatuko da, produktu garbigarri eraginkor bat proiektatuta. Garbigarri hori fabrikatzaileak gomendatutako kontzentrazioan dosifikatuko da, biodegradagarria izango da, gutxienez, % 90ean, eta apar gutxi sortuko du.	b) A continuación, se efectuará un pulverizado manual o mecánico de la superficie externa del contenedor proyectando un producto detergente eficaz. Dicho detergente se dosificará a la concentración recomendada por el fabricante, será biodegradable como mínimo en un 90% y generará una cantidad reducida de espuma.
c) Azkenik, produktua kenduko da edukiontzitik, ur hotz edo beroarekin, presio handiko lantza baten laguntzarekin.	c) Finalmente, se enjuagará el contenedor con agua fría o caliente, con ayuda de una lanza de alta presión.
Beharrezkoa izanez gero, presioko lantzarekin garbitzen ez diren zatiak eskuz garbituko dira.	Si fuera preciso, aquellas zonas que se resistan a la limpieza mediante la lanza a presión se limpiarán de forma manual.
Garbiketa bukatutakoan, edukiontziaren kanpoko azalerak ez du zikinkeriarik batere izan behar.	Finalizada la operación de lavado, el estado final del contenedor será tal que su superficie exterior no ofrezca resto alguno de suciedad.
Arreta berezia jarriko da, baita ere, edukiontziaren inguruko eremuan (galtzada, espaloia...), eta olio orbanik badago, garbitu beharko da	Se prestará también especial atención a la zona situada alrededor del contenedor (calzada, acera...), procediendo a limpiar cualquier posible mancha de aceite que pudiera haber.
Garbiketa lanak Udaleko Zerbitzu Teknikoek aldez aurretik baimendutako prozedura eta garbigarri kimikoen bidez egin beharko dira. Zerbitzu horiek, gainera, lortutako garbitasun maila kontuan izanda, agindu eta jarraibide zehatzak eman ahal izango dituzte, kontratistak nahitaez bete beharrekoak. Horretarako, kontratistak/ek erabili beharreko produktuen osagaien etiketak aurkeztu beharko ditu/zte, eta zerbitzua ematen hasi aurretik, erakustaldi praktikoa egin beharko du/te Udaleko Zerbitzu Teknikoentzat, edukiontzi kopuru txiki batekin, proposatutako garbiketa sistemaren eraginkortasuna baloratu dezaten.	Las operaciones de lavado deberán realizarse mediante procedimientos y detergentes químicos previamente autorizados por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, quienes podrán dictar, en función del grado de limpieza obtenido, órdenes e instrucciones concretas, que serán de obligado cumplimiento por el/los contratista/s. Para ello, el/los contratista/s deberá/n presentar etiquetado de los componentes de los productos a utilizar y efectuar una demostración práctica previa a la iniciación de la prestación del servicio ante los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, con un número reducido de contenedores, para valorar la eficacia del sistema de limpieza propuesto.
Edukiontziak kanpotik eskuz garbitzeko furgoi hidrogarbitzaile bat edo goi-presioko ekipo atoian eramateko bat erabiliko da, ur hotz edo berokoa, deskribatutako prozeduraren bidez kanpoko garbiketa egiteko behar diren elementu guztiekin hornitua.	Para la limpieza externa manual de los contenedores se destinará un furgón hidrolimpiador o un equipo de alta presión remolcable, de agua fría o caliente, equipado con todos los elementos necesarios para efectuar la limpieza externa mediante el procedimiento descrito.
Garbitzeko ordutegia:	**Horario de limpieza:**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Edukiontziak kanpotik garbitzeko lanak egunez egingo dira, astelehenetik ostiralera, inoiz ez 08:00ak baino lehen, eta ez 22:00ak eta gero. Asteburuetan eta jaiegunetan, inoiz ez 09:00ak baino lehen eta ez 22:00ak eta gero, herritarrei eragozpenik ez sortzeko.	Las operaciones de limpieza externa de los contenedores se realizará en horario diurno, de lunes a viernes no antes de las 8:00 ni después de las 22:00 horas y los fines de semana y festivos no antes de las 9:00 ni después de las 22:00 horas, para evitar así molestias a la ciudadanía.
